

**XEDAPENA, 2023KO URRIAREN 31KOA, OSATEK, S.A. SOZIEATEKO ZUZENDARI GERENTEARENA, EPE BERRI BAT EMATEN DUENA ZUZENDU DAITEZKEEN AKATSAK ZUZENTZEKO ETA/EDO ERREKLAMATZEKO, OSATEK-EN DESTINOA DUTEN IDAZKARI-KATEGORIAKO LAN-LEGEPEKO LANGILE FINKO IZATEKO LEHIAKETA-OPOSIZIO BIDEZ.**

OSATEKeko zuzendari kudeatzaileak 2022ko azaroaren 28an emandako xedapen baten bidez, onartu egin zen lanpostuak lanbide-kategorien arabera banatzea, eta arautu egin ziren lan-kontratudun langile finko izateko hautaketa-prozesuaren oinarri orokorrak, OSATEKen aldi baterako enplegua lehiaketa-oposizio bidez egonkortzeko deialdi berezi baten bidez.

OSATEKeko zuzendari kudeatzaileak 2022ko azaroaren 30ean emandako xedapen baten bidez, onartu egin ziren oposizio-lehiaketaren bidez OSATEKeko idazkariaren kategorian lan-kontratu finkoko langile izateko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri espezifikoak.

OSATEKeko zuzendari kudeatzaileak 2023ko urriaren 24an emandako xedapen baten bidez, onartu egin zen OSATEKen, oposizio-lehiaketa bidez, lan-kontratuko langile finko izateko onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda.

Lehiaketa-oposizioaren bidez, OSATEKen destinoa duen idazkari-kategorian lan-kontratuko langile finko izateko baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda argitaratzean akatsa atzeman denez, zuzendu daitezkeen akatsak zuzentzeko eta/edo erreklamatzeko epe berria ematen da.

Azaldutako guztiagatik, eta Sozietatea Eratzeko Estatutuek langileen arloan ematen dizkidaten ahalmenez baliatuz, honako hau

### XEDATZEN DUT

**Lehenengoa:** Xedapen hau OSATEKen webgunean (<https://www.osakidetza.euskadi.eus/2022ko-enplegu-eskaintza/webosk00-otkcon/eu/>) eta Campo&Ochandiano enpresaren webgunean ([www.campo-ochandiano.com](http://www.campo-ochandiano.com)) argitaratzeko agintzea.

**Bigarrena:** 5 egun balioduneko epea ematea, xedapen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, zuzen daitezkeen akatsak zuzentzeko edo/eta erreklamatzeko, Osatek, S.A.-ko zuzendari kudeatzaileari idazki bat bidaliz [op-se6609osatek@campo-ochandiano.com](mailto:op-se6609osatek@campo-ochandiano.com) helbide elektronikora, edo posta arruntez Osatek, S.A.-ra (Urkixo zumarkalea 36, 5. solairua, Bizkaia Plaza eraikina, 48011 Bilbao).